

HAIZEAREN ORRAZIA

Bizitza abenturatxo soil bat besterik ez dogu, edo aukera bat. Aukera jakinez gero unea aprobetxatzen, momentua errespetuz eta libre bizitzen. Bai, momentua dogu disfrutatzeke garaia, orainaren bizitasunak dakartzku eta saiatze horretan geroa.

Abentura zein plazerraren tragedia errealtatea eta ametsa ei da, agian imaginazioaren emari edo desio baten erditzea, baina kasu guztietan, dogunetik emon daikegunez, garenaren eta egiten gaituenaren ispilu, nahien eta ezinen gotorlekuetatik ihesi darabilgun bizi indarra, gorputza eta arima elkar amiltzen diren paradisua.

Easo zeharbideko harizpeko, egur enbor zatiekaz eginiko, taukietan eserita nengoen.

-Aizu! Norantz hartu behar dot Haizearen orrazira joateko?

Hatzamarren taktua eten eta han jauzi jatan lurrera zigarro mutxikina, nire planeta aurrean nuenaren ikusmiran urtu zan, gorputzean eztanda egin eustan emozioak, liluraren zurrumbiloan ez ezik, bapateko galerna, enbataren menpe utzi ninduen.

-Zeozertatzen jatzu?

-Gorputza emozioen eszenatoki bihurtu jat, atera jatan mar-mar,...-ez, ez, ezer!, bai , bai, laguntea gure? Erantzun neuntson halako baten eztakit zelan.

Kontxako pasealekura zeharkatzera gindoazela, han zetorren motorrak jo aurretik kamisetatik heldu eta bere gorputzaren kontra erreskatatu ninduen errepidetik... eternoa egin jatan ha unea, gorputzaren oihal sentitu nintzan eta amaiera bako instante haretan.

-Parkatu!... uneko izerdi uholdearen arrastoak bere bularretara itsatsia zegoen blusa zurian lurrindu ziran, ikara eta lehen irribarreak enpatizatu egin ziran egoeraren estres eta antsietatean, momentuko sentimendua apreziatzean frustraziotik haratago konfiantza gailentzen hasi zan.

Kontxako balaustradatik begibistan geneuzkan irudiak delirio partekatua bilakatu jakuzan...

- Eta hori guztia, zeuk egiten dozu ederragoa, esan neuntson.

-Nik?

-Bai, ingurua partekatzeko egin deustazun eskaintzagatik, eta erantzunari aurre hartuz,

-Hala, goazen!,...eta hondarrerako eskaileak jeisten hasi ginen.

Desioak hondar arrastoetan grabaturik baleude, halaxe zetorkidan are zuriaren

berotasuna oinetatik burmuinera. Eskerrak, pausoak aurrera egin ahala, olatu hautsien aparrak freskura puntua igortzen eustan haragira.

Hondarretako tunelaren alboko labarretan arrastiko azken eguzki izpiek, harri bustian, bizi eta garen eran islatzen zituen gorputzak, dir-dir hauskor eta garden tankeran. Une batez, egia zirudien argia, ura eta lurra bera neure barrenetik sortzen zirela, pentsamenduak hegan, uretan, haizetan... barrero lurrinduten nituela !

Hankak uretan, jada ipurdi masailak marearen esku, hitzek arauak galdu eta koloreak hartzen hasiak ziren. Gorputza gorputzan kontra izanaren sentsazioak pilota beraren aurpegia zirudien paisaiaren edertasunean, lurraren mintzaira nahikoa zan isiltasunari berbea, soinua jartzeko.

Garriraino blai eginak ginen elkarren kuriositatetik, interesetatik, jakin minaren sorlekuetatik, irudimenaz gozatzeko bakoitzaren laberintoak zeharkatzen hasi orduko. Sarri, sarriegitan gure eskuak gabeziak isuritzen dabezan arren, egunak zenbat giltz jartzen dituen eskura!

Halako batean, berben, komunikatu nahiaren emozioak, fantasia eta errealtatea besarkada eta lehen mosu gozo batetan oratu zituen... desioak entzunak izan balira eta ostean geitua izan balitz barruak izarretan erretzeko.

-Aizu!, haizearen orrazira joan behar dogula!

Ohikoa izango balitz legez, eskutik helduta abiatu ginen gorputzak mila zatitan ensanblaturik, bustirik, urak duen gardentasunak estalirik.

Hondarretako hondartzara heldu orduko erabat uretan murgildu beharra izan genuen, mundua osoa Aieteko miradoretik eta oinezkoz betetako pasealekua begirale izan arren, geu bakarrik izan bagina inguru hartako kontzertu bibolinak.

Poztasunean, bizitzako kontuak lotura eta sare edo tranpaz beterik izaten diren arren, ametsa naiz eta ametsetatik nator sentitzea indar eragile izugarria denik ezin uka Haizearen Orrazirantz abiaturik.

Horrela zihoan gure txalupa, kontakizunak bor-bor, uretan libre, olatuen denporan jolasean, gorputza eta arnasa osasun salitrez aromatizatua, erlaxatua.

Oharkabea, hondarreta atzean itxita, Chillidaren obraren aurrez aurre ginen, berben jarioan doinua eta erritmoa bat egitera zetozen. Haize ufaden tonuaren hurbiltasuna eta itsasoaren dardara sormenagaz bat eta elkar zetozela zirudien, bardin edo desbardin baina ilusioaren zorroa sentsazio, emozio, sentimenduz elikatzen.

la bertan genuen momentua, gure barruko koloreen plaza, helmuga eta irteera. Unibertsoaren handitasunean gure txikitasunaz ohartu eta haizea orrazteko ispilua.

Oinak lehen eskaileran ipini orduko, pausoak bapatean eten egin ziran, begiak esnatu eta sormena erabat nagusitu. Entzumena sorpresaz garatzeko aukera be oholtzara igotzen hasia zan.

Gizakiok gure planetaz ohartzean geure inguruagaz partekatzen dogun ale sortzaile xumeak, natur baliabideen etekin eta ondare, kultur adierazpidea, tokian tokiko izaeraren aztarna, garapena, ezagutza, izaera eta izatea gara. Horixe geunkan aurrean, artearen klimaxa, kultura baten emozio landua, lur-aire- eta ura uztarturik sormena begietan irudikatua.

Tokiaren espektatibak elkarren begiradan adostasun keinua hausnartutera eroan gintuen, oinak lurretik ezin aska itxasora begira besarkaturik. Aurpegi masailak bateginik, nire besoak bular parean eta bereak gerri, ipurdi masiletan tenkaturik, burnizko formen gogortasunetik urrunago zihoazen pentsamendu eta uhinen sentsazioetan murgildu ginen.

-Aurrean dogun espazioa bortitza irudituten jat, esan eustan haizearen txistu epelak babesturik.

-Doguzan mugak, doguzan erreferentziak gure izaera eta bizi mugimendua zizelkatuten deuskue. Inguru honek, errealtatean ematen diren gure arteko interakzio eta gatazkak dakarzkite gogora, erantzun neuntson.

Isiltasunak Donostia Hiria bikoiztu egiten zuen uraren magalean, zero lokartua eta huriaren argitasunak ingurua oraindik liluragarriagoa bilakatuz.

-Neuk be, txori izan gura neunke, hegan egin eta errealtatearen grabitateari ihes egin, pertsonok espazioan garen hutsa ikusteko.

-Behin , Eduardo Chillidagaz aurrez aurre egoteko aukera izan neban, hutsik geratu nintzan... errealitateak, bizitzak hargatik edo horregatik sortzen deuskuzan aurreritziak mugatu ninduten.

-Bizitasun ikaragarria izango zuen?

-Oso. Oso indartsua..., olatuak, itxasoak, haizeak ... ia heuren haina indartsua.

-Altzairuzkoa... salitreak erdoildutakoa. Arrea, arrano arrea. Olatua, harroka, haizeak zimurtutako eskua. Gune sakratua, gizakiaren eta naturaren arteko elkargunea.

Chillidaren obraren inguruko komentarioak izkutuko mila bideren ohargabeko lekuko bailira, gure gorputzak haize orrazi, eskuen laztan eta topaleku bilakatu zituen. Bizitza osoan elkar maitatu izan bagenu, zoramenean amildu jakuzan emozioak, eskuen ikuitu suabeak iztar, bular, ipurmasailak leuntzen zituen bitartean, gure ezpain gorriak elkar miazkatzen jardun ziren.

Airearen gozotasunak titi buru piztuak altzairuzko begi hutsaren espazioa erabat bete eta zoragarrizko mozkorraldian abiatu zituen. Gorputzak lapa lapa eginda, nire eskuen mugimendua galtza txikien barrena, alu inguru eta klitorisean labantzen murgildu zan, txalupa uretan olatuen erritmoan mugitzen dan eran. Asperen eta sentsazioen plazer ahotsak lurreko haize tutuetatik aireratzen ziren ufadekin sinkronizatutako musika akordeetan lurrintzen ziran labarretan zehar. Une hartako zoriontasunak harrapatu egin ezpain bustiek sama eta belarri lobuloetara egin zuten salto, eskuen eskultura bera be geure gorputzakaz bateginik elkar ferekatzera hurbildu jakula emoten eban hartan.

Halako batean, Igeldoko gazteluaren dorrea baino tenteago zen zakila, arrainen larru labankor eta leuna transmititzen eban eskuen erritmoan izarretaratu zan. Mundua zoratuena dala inoiz entzuna nuen arren, argi egoan ez ginela ohartzen non ginen, ezta inguruan zer ari zen gertatzen. Maitasun gestoa, eskulturen mugetatik haratago, itxasoak irudikatzen zuen ispiluan, izarretaraino igo zan, gure arnas beroak sortutako aire korrontean barrea eta plazerra grabaturik eroalarik. Hala, lilurazko desio birtualetan emoten dan eran, masturbaziorik ederrenean irauli ginen, mosu eta laztanen isurian. Gauaren ordu txikiatararte iraun eban osteko besarkada eta muxuen baladak.

-Orain badakizu non dagoen Haizearen Orrazia?

Haizearen Orrazia

-Eztakit nondik etorri naizen, halandabe eskulturak eta ingurunea zoragarriak eta gozoak egin jataz. Gorputzean egiazko begirada zintzoa sentitu arazi deust Haizearen Orrazira etortzeak. Pentsatu, imaginatu eta batez be nire gorputza sentitu arazi deustana bizi izan dut, bizitzea!

Isiltasuna egin jakun lagun, oraindik erdi biluzik ziren gorputzak elkar eginiko laztanak airean usaintzen, marrazturik jarraitzen eben artean.

-Gaur, isilean, maitasunez asetu naiz. Olatu sinpatiko, maitale lirain bategaz egi dot topo, eta milaka hondar ale itsatsita geratu jataz gorputz azalean, milaka mosu eta laztan nire pentsamenduen haragian. Ilusio horrekin lokartu gura dot.

Bere berbak entzuten amaitu orduko, maitatu neban gorputza nirearen kontra lepoz jarri eta eskuak bere bularretan X. Leteren "ez nau izutzen negu hurbilak,/ uda beteko beroan / dakidalako irauten duela / orainak ere geroan..." tarareatzen hasi nintzan. Halako batean, gorputzari buelta erdi eman eta nirearen gainean itxunda, begirada nirean josiz, zera susurratu eustan:

-“Zein garrantzizkoa dan garrantzirik ez duena”

Barne pentsamenduak hausnartzeari ekin baleutsie, berboi ezpaineak hartu eutsien segida, gorputz kilikilikatuak plazer, laztanetan entregaturik gau aroari.

-Inoiz hotzikaraz, dar-dar aurkitzen bazara, esaidazu arren, nire arbola biluztu eta orri guztiak zure gorputzean itsatzi dagiazan...

- Oteiza datorkit burura, " Barruan naiz.../ eta jokotik kanpo era berean / ...eta harriduraz beteta!"

-Niri, zelan ez, Whitman: "...eta ibiltzen joan nintzen bakarrik, gauaren aire hezean, aldizka begiratuz,...isiltasun perfektuan izarrak."

Gauaren magiak bere baitan murgildu gituen itzulerako ibilbidean, abiapuntura heltzeagaz bat...esku bat hankartetik, bestea lepotik...tiobibo batek baino itzuli gehiago egin nizkion, bere ileak airean Haizearen Orrazia irudikatzen, galdetzen eben artean.

-Arorik aro doa denpora, ez dauka hasiera ez azkenik...uneko irriparrea marraztuz: gorputzak bi bular horietaz galdetzen deustanean, edo buruak zure usainen, koloreen atseginez..., nik, dozun izarrak, azal, larru, ikuituaren liluraz mintzatuko natzaio, maite zaitut!